

"Itsasoratze Artibista: Arterapia eta Artibismoa" gaur egungo premia sozialei artearen bitartez ekiteko prozesu bat da, ikerkuntzan, partehartzean eta erakusketan oinarritzen dena. Irudizko ontzi batean itsasoratuko gara, eskubide eta ardura zibilen, giza eskubide eta arduren, eta eskubide eta ardura ekosistemikoen itsas zakarretan nabigatzeko. Eta abian ipiniko gara honako helize eta lemarekin: 'artibismoa' edo indarkeriarik gabeko baliabide sortzaileen bitarteko aktibismo sozial eta politikoa.

"Itsasoratze Artibista: Arterapia eta Artibismoa" Gernika Gogoratzuz Bakearen aldeko Aztertegiak eta Gernikako Bake Museoak antolatuta dago Donostia-San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburua Bakearen Itsasargiarentzat, eta egitarau bikoitz batean datza:

- * Programa estatiko bat, Forum bik, 6 Elkarrizketa Biribilek (eskubide eta ardura zibil, gizatiar eta ekosistemikoen pertsona erreferentzialekin), 9 Laborategi Saiok eta jardura guztiak bildu eta dokumentatuko dituen Erakusketak batek osatuta;
- * Agenda dinamiko bat, Laborategi Saioetako parte-hartzaileek zehaztuko dituzten "Abordatzeen" edo hiritar interbentzioen arabera eratua.

Nabigazio-Kaiera:

Lau jardura motak xedatuko dituzte "Itsasoratze Artibistaren" norabidea, maniobrak eta jitea.

1) Kubiartako Biribilak kolektibo edo pertsona gonbidatuekin: *Combatants for Peace, Žene u Crnom, Artifariti, Mosireen, Ruta Pacifica de las Mujeres, Enmedio, Ruckus Society, UK Uncut, Yes Men* edo *Center for Artistic Activism*, besteak beste. 6 Elkarrizketa Biribil antolatuko dira 2016an zehar. Biribil horretan parte-hartzea pertsona orori irekia da eta ospatuko den lekuaren edukieraren arabera mugatuko da. Biribil bakoitzak 3 ordu iraungo du.

2) Laborategi Saiok (gonbidatutako pertsonetik Biribiletatik inspiratuta). 2015en amaieratik 2016en amaiera arte 9 Laborategi Saio egingo dira, haietako 6 Kubiartako Biribilen ondoren eta hauek inspiratuta. Laborategi Saioetako parte-hartzea irekita izango da alde aurretik izena emanda. Parte-hartzaileen muga Laborategi egingo den tokiaren edukieraren arabera izango da. Iraupena 6-8 ordu bitartekoa izango da.

3) "Abordatzeak" edo hiritar interbentzioak. Laborategi Saioetako parte-hartzaileek batera diseinatuta eta programatuta. Laborategien ondoren iragarriko dira.

4) Erakusketak, singladura denetan zehar sortutako material guztien, alegiazko zein fisikoen bilduma.

Informazioa:

Agenda: <http://dss2016.eu/eu/agenda>

Logistika: alexcarascosa@gernikagogoratzuz.org

Itsasoratze Artibista



Artibistak ez baitira lehorrerutzen, gatazka begiztatu eta haren ur zakarretan barrentzen dira eraldatzeko asmoz.

«Gauzen sortzaile izanik, suntsitzaile izan ordez, artistek ulertzen dugu bakea ez dela aukera askotako bat, aukera iraunkor bakarra baizik».

Gernikako Deklarazioa, Artea eta Bakearen Lehen Nazioarteko Topaketa, 2003ko abendua

«Artea indar ebolutibo-iraultzaile bakarra da gizarte sistema zaharkitu baten ondorio errepresiboak deuseztatzen gaitzen ARTELANA BEZALAKO GIZARTE ORGANISMO bat eraikitzen. Arte diziplina modernoago honek —Eskultura Soziala / Arkitektura Soziala— beteko du bere xedea pertsona guztiak gizarte organismo horren sortzaile, eskultore edo arkitekto bilakatuko direnean. Orduantxe bakarrik Happening-a gauzatuko da. [...] GIZAKI ORO ARTISTA DA eta —norbere askatasun egoeratik— ikasten du xedatzen GEROKO ORDENA SOZIALAREN ERABATEKO ARTELANEAN dagokion kokapena».

Joseph Beuys, *I am searching for field character*, 1973.



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU

GERNIKA GOGORATUZ
Centro de Investigación por la Paz. Bakearen Aldeko Aztertegia. Peace Research Center
Fundación Gernika Gogoratzuz. Gernika Gogoratzuz Iraskundera. Gernika Gogoratzuz Fundazioa



Gernikako Bakearen Museo Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

Gernika Gogoratzuz Elkartearen eta Gernikako Bake Museoaren proposamena Donostia-San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburuko Bakearen Itsasargiarentzat

benetako Itsasoratzea irudizko ontzi batean

